

HORI DOK! HORI DOK!

HORI DOK SASOIA^(bir)

1

Zorionean dator
jubilazinoa,
aprobetxatu daigun
gaurko okazinoa.

2

Guri deitzen deuskue
atso ta agura;
enbidia daukanak
egin bei azkura.

3

Hazurrak egin arren
sarri krik eta krak,
salto baietz gustoko
sasi alanbradak.

4

Bizitzako urteak
asko joan dira,
geratzen diranetan
ez egon begira.

5

Eleizan ta kalean
jokatu umorez,
danok parte hartuaz
bietan faborez.

6

Gu holan ikusita
pozik etxeoak,
a ze barre-algarak
zerutik Jainkoak!

7

Gogoz jokatu daigun
gorputz ta arima,
gero esan ez daigun:
ene, hau lastima!

8

Bake ta bizipoza
ez da falta hemen,
halan bedi sekula
sekulorun. Amen.

9

Lagun, orain lanetik
zara jubilatatu,
zeure bizitza da ta,
zeu espabilatu